



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea  
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ  
2025/05/14



## Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua  
LUCIA BELOQUI IRIARTE  
2025/05/14

### **2025EKO MARTXOAREN 26AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko martxoaren 26n, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Javier Auza, Julen Beunza eta Iker Isiegas.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Mikaela Elizalde eta Alaia Etayo.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

#### **GAI ZERREDA**

##### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Otsailaren 26ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

##### **2.- Alkate ebazpenak**

-2025/22 alkate ebazpena onartzea Aranzazu Prieto Lopezi Aizarotzko Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko eskaera otsailaren 8an, martxoaren 7an eta 8an jantoki bezala erabiltzeko.

- 2025/23 alkate ebazpena Itsasoko 4. Poligonoko 466 lursailean zaldi bat edukitzea jarduera abeltzaintzako ustiategi estentsibo eta, beraz, KALTEGABE deklaratzeko.

- 2025/24 alkate ebazpena Orokietako 8. Poligonoko 203 eta 205 lursailetan 5 zaldi edukitzea jarduera abeltzaintzako ustiategi estentsibo eta, beraz, KALTEGABE deklaratzeko.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea  
SANTOS ETXEGIA ORONIZ  
2025/05/14



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua  
LUCIA BELOQUI IRIARTE  
2025/05/14

-2025/25 alkate ebazpena Beramendiko 1. Poligonoko 93. Lursailean nekazaritza nabea egiteko baimena Ganaderos de Navarrari 330.562,85 euroko aurrekontuarekin.

-2025/26 alkate ebazpena Udabeko 1. Poligonoko 8. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko obra baimena onartu 13,500 euroko aurrekontuarekin.

-2025/27 alkate ebazpena Udabeko 1. Poligonoko 103. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko obra baimena onartu 13,000 euroko aurrekontuarekin.

-2025/28 alkate ebazpena Igoako 9. Poligonoko 284. Lursailetik 20.494 m2 bereizi eta poligono bereko 286. Lursailari elkartzeko baimena onartzea.

- 2025/29 alkate ebazpena onartu M<sup>a</sup> Carmen Queiro Suarezek aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea aipatutako NA 5980H eta NA 7834 AP matrikuladun autoen zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea bien kasuan.

-2025/30 alkate ebazpena onartu Unai Loidi Zabaletak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea aipatutako NA 4969 AF matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

- 2025/31 alkate ebazpena onartu udaleko 2. Pisan dagoen etxebizitzaren errenta arautuko duen baldintza plegua.

- 2025/32 alkate ebazpena onartuz IDEA taldeak aurkeztutako aurrekontua onartzea 6.500 euro BEZ kanpo Innova Rural 2025 laguntza deialdia memoria egiteko..

- 2025/33 alkate ebazpena 2025ko kontribuzioan sartzeko Nafarroako zerga ogasuneko lurralde aberastasunaren zerbitzuko zuzendariak Otsailaren 12ko 2025/22 ebazpenean onartutako eta bidalitako balioen zerrenda onartzea.

- 2025/34 alkate ebazpena onartuz Irati Mundunateri martxoaren 15 eta 29an Apeztegiberriko ganbara erabiltzea dantza urbano klaseak eskeintzeko.

- 2025/35 alkate ebazpena onartuz Aitor Arangoa Mariezkurrenari borondatezko eszedentzia martxoaren 12tik aurrera.

- 2025/36 alkate ebazpena onartuz Irati Mundunatek egindako eskaera 2024-2025 ikasturteko astelehenetan erlajazio eta luzaketa klaseak emateko 19:00etatik 20:30etara.

-2025/37 alkate ebazpena onartuz Martin Perurena Belzak baimena ematea Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia erabiltzeko txirrindula klaseak egiteko martxotik maiatzera ostegunetan 17 etatik 18:30etara.

Ikusita ebazpenen zerrenda alkateak aipatzen du udaleko bigarren ipsuko alokairuaren plegua onartu zuela aurreko esleipeneko pleguaren berbin berdina alokairu sozialean esleitzeko eta orain batzarrari dagokioala erabaki hori berrestea eta hortaz berresten dute biildutakoek 2025/31 alkate ebazpena non onartzen den udaleko bigarren pisuko etxebizitza librearen errenta arautzen duen plegua onartzen den eta proposamenak aurkezteko epea apirilaren 7 arte irekitzen den.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea  
SANTOS ETXEGIA ORONIZ  
2025/05/14



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua  
LUCIA BELOQUI IRIARTE  
2025/05/14

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak eta berresten dute hortaz 2025/31 alkate ebazpena.

### **3.- 2025ko lan egutegia.**

2025. urteko lan egutegia aurkezten du alkateak, langileekin adostutako proposamena da.

Bertan tokiko jai bezala maiatzaren 2 eta abenduaren 26a jartzea proposatzen dute. modu honetan geldituko litzateke 2025. Urteko lan egutegia:

Basaburuko Udalak, 2025eko martxoaren 26an eginiko osoko bilkura arruntan, Ultzamako Udalaren zerbitzuko langileen 2025eko aste barreneko jaiegunen egutegia onetsi zuen, eta ordaindu bai baina errekuaperatu behar ez diren 2025eko honako jaiegun hauek ezarri zituen:

- Urtarrilaren 1a, asteazkena: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 6a, astelehena: Errege eguna.
- Apirilaren 17a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 18a: Ostiral Santua.
- Apirilaren 21a: Pazko Astelehena.
- Maiatzaren 1a, osteguna: Langileen Eguna.
- Maiatzaren 2<sup>a</sup>. Ostirala Tokiko pesta.
- Uztailaren 25a, ostirala: Santiago Apostolua.
- Abuztuaren 15a, ostirala: Andre Mariaren Jasokundea.
- Azaroaren 1a, larunbata: Santu Guztien Eguna.
- Abenduaren 6a, larunbata: Konstituzioaren Eguna.
- Abenduaren 8a, astelehena: Andre María Sortzez Garbia.
- Abenduaren 25a, osteguna: Eguberria.
- Abenduaren 25a. ostirala, Tokiko pesta.

Era berean, baliogabetzat jotzen dira, 2025. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetarako adierazitako jaiegunak.

Basaburuko Udalaren urteko lanaldiaren banaketa, 1.592 egiazko lanordu, honela egingen da:

A) Eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, 7:30 eta 15:20 bitartean.

B) Jendea hartzeko eta erregistro orokorra irekitzeko ordutegia 9:00etik 14:00era arte izanen da.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea  
SANTOS ETXEGIA ORONÓZ  
2025/05/14



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua  
LUCIA BELOQUI IRIARTE  
2025/05/14

C) Organo administratibo eskudunek arauz ezarritako oporrak honelaxe emanen dituzte: oporraldi luze bat edo bi, eta urtean zehar hartzeko zazpi egun solte baino ez, zerbitzuaren beharrek aukera ematen dutenean.

Halaber, langileek aukeratu eta hartzeko 3 egun izanen dira, norberaren arazoetarako eta tokiko pesta bezala beste bi egun eta 14 orduko lan poltsa. Alkatetzari aurretik eskatu behar zaizkio egun eta ordu hauek, behar adina denboraz, eta modu justifikatuan.

D) Aurreko A) apartatuan ezarritako lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko zerbitzuaren beharrak direla-eta lanaldi berezia dutenei, ezta ikastetxeko langileei ere, horiek lan egutegi berariazkoa izanen baitute; hala ere, errespetatu beharko dute orokorrean ezarrita dagoen urteko lanordu kopurua.

Betiere, 2025erako, orokorrean, Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen den urteko lanaldiak baldintzatuko du urteko lanaldiaren iraupena. Horren ondorioetarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren doikuntzak egingen dira.

Bildutakoek aho batez onartzen dute 2025eko Basaburuko administrazioko langileen lan egutegia eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.

#### **4.- Plazaola Patzuergoa Turistikoa. Udaleko ordezkarien izendapena**

2025koa abenduaren 23an onartu zen batzarrean Plazaola Patzuergo Turistikoko kide izatea, baina udaleko ordezkariak zeintzuk izango ziren ez zen erabaki hortaz gaur hartu beharreko erabakia hori da,. Bildutakoek eztabaidatu ondoren hauek izendatzen dituzte Basaburuko Udalek ordezkariak patzuergoan:

ORDEZKARIA: Santos Etxegia Oronoz

ORDEZKOA: Julen Beunza Arano

**Erabaki hau Plazaola Patzuergo Turistikoari helaraztea agintzen dute bildutakoek.**

Alkateak aipatzen du gainera gai zerrendatik kanpo badaudela beste hiru gai aztertzeko eta premia dutenez gai zerrendan sartzeko proposamena luzatzen die bildutakoek.

Bildutakoek aho batez onartzen dute gai zerrendan gaia aztertzea.

#### **Udabe Beramendiko kontzejuak sustutako xehetasun azterlanak bai Udaben bai Beramendin frontoiak egiteko**

Alkateak azaltzen du kontzejuak bi herrietan frontoi bana egin nahi duela. Beramendin egin nahi dutena sustatutako urbanizazioan egin nahi dute eta Udaben 23. Lursailaren ondoan. Bien kasuan 8.65\*14.35 metroko rektangelu bat marrazten dute xehetasun azterlanean eta mugetara udal araudiak eskatzen dituen distantziak bermatzen dira.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea  
SANTOS ETXEGIA ORONIZ  
2025/05/14

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua  
LUCIA BELOQUI IRIARTE  
2025/05/14

Udal arkitektoak baieztatu txostnea egin du tramitazioarekin aurrera egiteko baina behin betiko onespenerako aurkeztu beharko dute dokumentua oon UTM koordinadak agertzen diren.

2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 63 eta 74 artikuluetan arautzen duenaren arabera, xehetasun azterlanari hasierako onespenera eman ondoren NAO argitaratua egin behar du 20 eguneko epean alegazioak aurkezteko epea irekiaz

*“Xehetasun-azterketak 72. artikuluan finkatutako erregelen arabera izapidetuko dira, salbuespen hauekin:*

*a) Izapidetzea zuzenean hasi ahal izango da dokumentuaren hasierako onespeneraren bidez.*

*b) Jendaurreko erakustaldia hogeit eguneko izanen da, hasierako onespeneraren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.*

*c) Hasierako onarpena erabakitzeko edo ukatzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, dokumentazio osoa Udal Erregistroan aurkeztu denetik hasita. Jendaurrean jartzeko epean alegaziorik aurkeztu ez bada, dokumentua behin betiko onartuko da, hala badagokio.”*

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

**Hasiera batez onartzea Udabe Beramendiko kontzejuak sustatutako xehetasun azterlanak, Udabe eta Beramendiko herrietan frontoiak egiteko lerroakadurak zehazten dituztenak.**

**Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, 2017/1 FDL-aren 74. Artikuluen arabera iragarkia argitaratu eta 20 eguneko epean jendaurrean egon dadin alegazioak jarri ditzaten interesdunek.**

#### **Atezko Udalak aurkezteko erabakia, udalen hartzeko lankidetzak hitzarmenari atxikipena adieraziz.**

Alkateak irakurtzen du Atezko udalari jasotako jakinarazpena non adierazten duten martxoaren 12a udalak egindako batzarrean onartu zutela Larraun, Imotz, Araitz eta Basaburuko udalek sinatutako hitzarmenari atxikitzea. Gogoratzen du hitzarmen honen helburua dela udalek dituzten beharretarako langileen zerrenda amankomunak izatea

Basaburuko udalari hortaz atxikipen hori onartzea dagokio eta bildutakoek hala onartzen dute, hots Atezko udala Larraun eta Imotzko udalekin batera lankidetzak hitzarmenean parte hartzea.

#### **5.- Mozioak**

Ez dago moziorik.

#### **6. - Batzordeen informazioa.**

#### **Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.**





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea  
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ  
2025/05/14



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua  
LUCIA BELOQUI IRIARTE  
2025/05/14

Apirilaren 26an emakumeen Amalur bizikleta jeitsiera burutuko da eta horretarako udal polikiroldegia erabiliko da, antolaketa burutzeko eta parte hartzaileak bertan dutxatzeko aukera izateko.

Haurrendako txirrindula ikastaroa hasi da, adin desberdinetako 15 hurrek parte hartzen dute eta gainera 5 helduk osatutako beste talde bat ere atera da.

### **Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.**

Euskaraldiaren antolaketakarako batzordearen bilera egin da, bertan Imotz eta Basaburuko ordezkariak elkartu dira eta udalerrri bakoitzean bi ekintza egitea adostu dute, Basaburuaren kasuan maiatzaren 3an monologo bat eskainiko da Apeztegiberrin.

Bestetik Nafarroako Bertsolari Txapelketarako saio bat Basaburuan egitea eskaini dute, batzordean proposamena onartzea adostu da eta hortaz ere eskatzen duten 500 euroko ekarpena ordaintzea ere onartu zen.

### **Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.**

Batzordeak bilera egin du batzordea berpizteko, antolatu nahi diren ekintzen artean, udan aurreko urtean bezala pertseiden ikuskapen litzateke bat.

Zeramika tailerra Basaburuan egiteko proposamen bat jaso da, udalari lokal bat eskatzen diote. Hainbat aukera ikusi dira ez denak egokiak eta aztertuko da eskolan erabiltzen ez den gelaren bat uztea. Urrira begira hasteko asmoa zuten eta ordurako eskolako gelarena landuko da.

Alkateak aipatzen du asteburutan eskolako galdara kargatzeko sistema kendu nahi dela langileak asteburutan ez lan egiteko eta hortaz aztertzen ari direla gasezko beste galdara bat jarritz eta erabiltzen ez diren gela batzuk itxiz.

Ireber elkartearekin bilera burutu du batzarrak, urtero herri desberdinetan egiteko Basaburuko eguna eta aurtengo antolakuntzari hasiera emateko, Berueten burutuko da 2025. urtean

### **Gizarte Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Sasturain etxean eguneko egoitza egiteko eskualdeko osasun etxeko langileekin bilera burutu zen proiektua aurkezteko.

### **7.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:**

- Kontzejuen bileran lan babestuko programa aurkeztu zen eta hurrengo bileran zehaztuko dira herri bakoitzean egin beharreko lanak.
- Amaia Zalba berdintasun teknikariarekin bilera egin du berdintasun plan berria garatzen hasi behar delako. Eskatu zaio saio bat egiteko ostalariekin pestetan agresio sexualen ingurukoa.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea  
SANTOS ETXEGIA ORONQZ  
2025/05/14



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua  
LUCIA BELOQUI IRIARTE  
2025/05/14

## **8. Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:20 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.

